

# EXCERPTA

35. zenbakia

1989-apirila

gaiak

orrialdeak

Greko-euskarazko gramatika-konposaketa(Orixe).....	681
Hesiodo-ren Teogonia.....	682-683
San Joan Krisostomo eta paganoen ohiturak eta pentsakera.....	684-685
Plinio Gaztea(eskutitzak).....	686-687
Seneka(De brevitae vitae).....	688-691
Definitiones,etymologiae,explicationes e Sancti Augustini scriptis depromptae.....	692-693
Definitiones,etymologiae,explicationes e Sancti Jeronimi epistolis depromptae.....	694-695
Grezia-ko Mitologia(barne orrietako eraskina)	

-----  
Jon Gotzon Etxebarria  
Gernika

ΜΕΤΆ =

metachoré0=tokialdatu  
 metabouleúomai=asmoaldatu  
 metagignosk0= " "

metadoxate0=ustealdatu  
 metaskeuatz0=etxealdatu  
 metamorphó0=eraldatu  
 metaplass0=eraberritu  
 metaktítz0=birregin  
 meteimí=egoki(aditza);metestí=dago-  
 kio.Cfr.=epeimi

eraginkorra metakaléθ=deitarazi,etc...

izenak

metabásis=tokialda  
 metagenĒs=urren-sortua  
 metagrapheús=birridazle=copista  
 metapoiĒsis=eraberritze,-keta.

Orixe(1942)

(jarraitzeko)

ΗΣΙΟΔΟΥ  
Θ Ε Ο Γ Ο Ν Ι Α

- 378 Ἄστραίῳ δ' Ἡὼς ἀνέμους τέκε καρτεροθύμους,  
ἀργέστην Ζέφυρον Βορέην τ' αἰψήροκέλευθον  
καὶ Νότον, ἐν φιλότῳ θεὰ θεῶν εὐνηθεῖσα.  
Τοὺς δὲ μέτ' ἀστέρα τίκτ' Ἡοσφόρον Ἡριγένεια  
ἄστρο τε λαμπετόντα, τὰ τ' οὐρανὸς ἐστεφάνωται.
- 383 Στῆξ δ' ἔτεκ' Ὀκεανοῦ θυγάτηρ Πάλλαντι μεγίστη  
Ζῆλον καὶ Νίκην καλλίσφυρον ἐν μεγάροισιν·  
καὶ Κρότος ἠδὲ Βίην ἀριδείκετα γείνατο τέκνα,  
τῶν οὐκ ἔστ' ἀπάνευθε Διὸς δόμος, οὐδέ τις ἔδρη,  
οὐδ' ὁδός, ἔπιη μὴ κείνοισ θεὸς ἡγεμονεύῃ.  
ἀλλ' αἰεὶ παρ Ζηνὶ βαρυκτύπῳ ἐδριόωνται.
- 389 Ὡς γὰρ ἐβούλευσεν Στῆξ ἀφθιτος Ὀκεανίη  
ἡματι τῷ, ὅτε πάντας Ὀλύμπιος ἀστεροπητῆς  
ἀθανάτους ἐκάλεσσε θεοὺς ἐς μακρὸν Ὀλυμπον,  
εἰπέ δ', ὅς ἂν μετὰ εἰς θεῶν Τιτῆσι μάχοιτο,  
μή τιν' ἀπορραΐσειν γεράων, τιμὴν δὲ ἕκαστον  
ἐξέμεν, ἦν τὸ πάρος γε μετ' ἀθανάτοισι θεοῖσιν.
- 395 Τὸν δ' ἔφαθ', ὅς τις ἄτιμος ὑπὸ Κρόνου ἦδ' ἀγέρατος,  
τιμῆς καὶ γεράων ἐπιβησέμεν, ἣ θέμις ἐστίν.

Goizaldeak Astreo-rengandik haize indartsuak izan zituen, jainkoarekin maitasunez etzan ondoren: Zephiro zuria, Borea ibiltari arina eta Noto, Gero Goizak Artizarra sortu zuen eta izar distiratsuak, zeruko koroeak. Stix-ek, Okeano-ren alabak, Palante-rekin elkartu eta bere jauregi an Zelo eta Nike (Lehia eta Garaipen), txorkatil ederrekoak, sortu zituen. Ahalmen eta Indar, seme-alaba argiak, ere sortu zituen; eurok Zeus-en ondoan dute bizilekua eta eserlekua eta ez doaz inora jainkoa aurretik eraman gabe; aitzitik beti ere Zeus burrunbariaren alboan daude eserita. Halaxe nahi izan zuen Stix Okeanotarrak, Olinpotar oineztarri-jaurtitzailleak jainko hilezko guztiak Olinpo zabalera deitu zituen egunean. Esan bait ziren, berarekin batera Titanekin borrokatzera zihoaztenek, lehengo dohaiez gabetu ez eta ordura arte jainko hilezkoarren aurrean zuten ohorea ere gordeko zutela. Eta baita ere, lehen Krono-ren menpean inor ohore-dohairik gabe geratu bazen, ohorea eta dohaiak ardietsiko zituela, legēzkoa denez.

vv.: 377-396.



## S. Joan Krisostomo

Εἰ δὲ βούλει καὶ τοὺς ἔξωθεν νομοθέτας ἐρέσθαι, ἀκούσῃ ὅτι κακείνοις τῆς ἐσχάτης ἀναισχυντίας τὸ πρᾶγμα δεῖγμα εἶναι δοκεῖ. Τοὺς γοῦν ἐν ἀξιώμασιν ὄντας, καὶ εἰς τὴν μεγάλην τελούντας βουλῆν, ἣν σύγκλητον καλοῦσιν, οὐ θέμις τοιούτοις κέρδεσι καταισχύνεσθαι· ἀλλὰ νόμος ἐστὶ παρ' αὐτοῖς ὁ τὰ τοιαῦτα ἀπαγορεύων κέρδη. Πῶς οὖν οὐκ ἄξιον φρίκης, εἰ μὴδὲ τοσαύτην ἀπονέμοις τῇ τῶν οὐρανῶν πολιτεία τιμῆν, ὅσιν τῇ βουλῇ τῶν Ῥωμαίων οἱ νομοθέται, ἀλλ' ἔλαττον οἴσαι τῆς γῆς ὁ οὐρανός, καὶ οὐδὲ αὐτὴν αἰσχύνῃ τοῦ πράγματός τῃν ἀλογίαν:

Eta atzerriko legegileak aztertu nahi badituzu, ikusi-ko duzu haientzako ere bai lukurreria azkenengo lotsa gabekeriaren erakusgarria dela. Eta ohoretan daudenen-tzat eta biltzar handira heldu direnentzat, Senatura, a legia, ez dela zilegihorrelako irabazietan zikintzea. A itzitik lege bat dute holako irabaziak galera izan di-tuena. Nola ez da izango ikaratzekoa, legegileek Erroma tarren batzarrean ematen dioten adinako lotsa zerutar jokabide honi zuk ez erakustea, zerua lurra baino gitx iagotzat ukan, eta jarduera honen arrazoigabekeriaz lo tsarik erakusten ez baduzu?

-----  
(Mateo Sainduari buruzko Homiliak:LVI,6)

## PLINIO GAZTEA

## C. PLINIVS BAEBIO HISPANO SVO S.

Tranquillus, contubernalis meus, uult emere agellum quem uenditare amicus tuus dicitur. 2 Rogo cures quanti aequum est emat; ita enim delectabit emisse. Nam mala emptio semper ingrata, eo maxime quod exprobrare stultitiam domino uidetur. 3 In hoc autem agello, si modo adriserit pretium, Tranquilli mei stomachum multa sollicitant, uicinitas urbis, opportunitas uiae, mediocritas uillae, modus ruris, qui auocet magis quam dstringat. 4 Scholasticis porro dominis, ut hic est, sufficit abunde tantum soli ut releuare caput, reficere oculos, reptare per limitem unamque semitam terere omnisque uiliculas suas nosse et numerare arbusculas possint. Haec tibi exposui quo magis scires quantum esset ille mihi, ego tibi debiturus, si praediolum istud quod commendatur his dotibus tam salubriter emerit ut paenitentiae locum non relinquat. Vale.

K.Plinio-k Bebio Hispano  
adiskideari osasuna.

Trankilo nire lagunak soro ttipi bat erosi nahi du, zu re lagun bat saltzekotan dabilena. Egizu ahalegina, otoi, prezio onean eros dezan; horrela erosiz gero poz hartuko dugu. Erosketa txarra beti ere mingarria, batez ere jabearen zentzunik eza erakusten duelako. Gure soro hau dela eta, berriz, salneurria gogokoa badu, gauza askok erakartzen dute nire lagunaren gogoia: hiriaren hurbiltasunak, behar denezko bideak, landetxearen egokitasunak, alderdi horren egoerak, erakarri gehiago egiten bait du uxatu baino. Gurea bezalako jabe eskolatuentzat, gainera, aski da horrelako lur-arloa: burua arindu, begiak atsegindu, bazterrak arakatu, beti bideska bera zapaldu, mahats aihenak ezagutu eta zuhaiznoak zenbatu ahal izateko modukoa izatea. Zer guztiok azaldu dizkizut argi ikus dezazun zordun izango natzaizula hura nirekiko zorretan den neurrian, askaintzen den horrelako lur-arlotxoak hain prezio onean eros baleza, gero da mutua egiteko aukerarik gabe. Agur.



## L. ANNAEI SENECAE

## DE BREVITATE VITAE

## AD PAULINUM

II. Quid de rerum natura querimus? illa se benigne gessit: vita, si uti scias, longa est. Alium insatiabilis tenet avaritia; alium in supervacuis laboribus operosa sedulitas; alius vino madet, alius inertia torpet; alium defetigat ex alienis iudiciis suspensa semper ambitio, alium mercandi praeceptis cupiditas circa omnis terras, omnia maria spe lucri ducit; quosdam torquet cupido militiae numquam non aut alienis periculis intentos aut suis anxios; sunt quos ingratus superiorum cultus voluntaria servitute consumat; multos aut affectatio alienae formae aut suae cura detinuit; plerosque nihil certum sequentis vaga et inconstans et sibi displicens levitas per nova consilia iactavit; quibusdam nihil, quo cursum derigant, placet, sed marcentis oscitantisque fata deprendunt, adeo ut quod apud maximum poetarum more oraculi dictum est, verum esse non dubitem: "exigua pars est vitae, qua vivimus". Ceterum quidem omne spatium non vita sed tempus est. Urgent et circumstant vitia undique nec resurgere aut in dispectum veri attollere oculos sinunt. Et immersos et in cupiditatem infixos premunt. Numquam illis recurrere ad se licet. Si quando aliqua fortuito quies contigit, velut profundo mari, in quo post ventum quoque volutatio est, fluctuantur nec umquam illis a cupiditatibus

## KLITEMNESTRA

## Κλυταιμνήστρα

Tindareo-eta Leda-ren alaba. Timandra eta Philonoe -Leda-ren "giza" alaben-eta Helena-ren ahizpa. Baita Dioskuroena ere, hau da, Leda-k Zeus-engandik izan zituen seme "jainkotiarrena". Helena-ren ahizpa bizkia. Bigarren hau, baina, Leda-rekin kisne-itxurapean batu zen Zeus-en alaba. Klitemnestra, ordea, Tindareo-ren alaba da.

Lehenengo Tindaleo-rekin, Tiestes-en semearekin, egon ezkontuta. Baina, gero Agamenon-ek haren semeak eta senerra hil zituen, Dioskuroek persegiturik Agamenon Klitemnestra-rekin ezkontzera behartu zuten. Hasiera txarra ezkontzarako.

Agamenon-ekin Klitemnestrak seme batzu izan zituen. Ejerzitoa Aulide-n biltzerakoan, Kalkante aztiak Iphigenia oparitzat eskaini beharra iragartzen du. Agamenon-ek emaztea eta semeak deitzen ditu, Argos-en geratu bait ziren, Iphigenia-ri Akiles-ekin ezkontzeko hitza eman bait zioten. Oparia ezkutuan gertatu, andrearen isilean. Iphigenia hil eta gero, erregeak Klitemnestra Argos a bidaltzen du; bertan Klitemnestra apendu asmoz ari da Telemako, Akiles-ek zauriturik, Argos-a atzera datorrenean osatzeko, Klitemnestra-k, Orestes umea bahituratzat hartuta, Agamenon zemitzeko aholkatzen du eta Agamenon kanpotik zelarik, Klitemnestra leiala izan zitzaion senarrari. Egisto, baina, hartaz maitemindurik jo eta ke aritu zen kantaria urnundu arte. Klitemnestra-k amore eman zuen, beharbada Nauplio-ren eraginez. Edo gizonaz bengan gantza hartzeko, Iphigenia alaba hil zuelako. Edo eta ze



loz, gizonak Kriseida-rekin zituen hartu-emanen jakitun bait zegoen. Egisto Agamenon-en jauregiak jabetu zen eta beraren hilketan prestatu zuen hura Troia-ra itzuli zenean.

Lehenbiziko poemetan Klitemnestra-k ez du parterik hartzen hilketan. Tragikoetan, aldiz, hiltzailearen lagun da eta hil ere berak hiltzen du. Soineko bat egiten dio, besoak eta sama josita, bainutik irtetzean oztopa dadin. Orobat Kasandra garbitzen du.

Zazpi urte geroago Klitemnestra Orestes-en eskuz hiltzen da, aita hil zuelako zigorrez.

*εἰ δέ κεν Ἄργος ἰκοίμεθ' Ἀχαιῶν, οὐθαρ ἀρούρης,  
γαμβρός κέν μοι εἶσι· τίσω δέ μιν ἴσον Ὀρέστη,  
ὅς μοι τηλύγετος τρέφεται θαλίῃ ἐνὶ πολλῇ.*

(Homero: ILIADA; IX, 142-5)

Egisto'k jauregian ziarduan egipen nagargarri areik eioten. Zazpi urtetan izan zan au agintari urrez aberats dan Mikena'n, eta ankapeturik euki eban erria. Atrida'ren eriotz ostean. Baiña, bere zoritxarrez, zortzigarren urtean Oreste jainkotia eldu zan Atenai'tik, eta onek emon eutsan eriotza bere aitaren iltzaille, Egisto maltzurari, aita leiñargia il eutsonari nunbait. Ilarazo ta gero, Oreste'k il-oturuntza emon eutsen argibotarra bere ama nazkagarriaren eta Egisto koldarraren illetetan; eta egun aretan eldu zan Menelau. burrukan azartua asko, ontziak ekarri-ala beste ondasunez astun. Eta zu, adiskide, etzaitz luzaro ibilli zeure etxetik kanpora. ondasunak eta gizaki ain arropuzak bertan itxi izanik: areik bear bada zure ondasunak euren artean banandu ta iruntsirik.

(Homero: ODISEA (Aita Onaindia-ren itzulpena, Bilbo, 1985), III, 303-5)

Laugarren eguna zan orduko Diomede Tidida, zaldi ezlearen lagunak Argos'en geratu ziranean euren ontzi txit egokituakin; baiña nik Pilos'erako bidea artu neban eta ez yatan iñoiz be aizerik palta izan, putz-egiñik ats emon eistan jainko batek bialdu abanetik. Orrelaxe etorri nintzan, seme maite, ezere albiste barik. akeuetatik zeintzuk onez urten ziran eta zeintzuk ondatu ziran jakin gabe. Alan be, neure jauregira biurtu nintzanetik esaten entzun dodana oraintxe jakin go dozu. bidezko danez: ez dautzut, ba, ezertxo be ixildu bear. Ondo eldu dirala diño akeu mirmidondar kementsuak, Akil biotz-aundikoaren seme argiak zuzentzen ebazanak; Filokete, Peante leiñargiaren semea be, onik kairatu dala; eta Idomeneuk Kreta'ra eroan zitula burrukatik iges egin eben bere lagun guztiak, itxasoak bat-bera be ostu barik. Atrida'z zeuok dozue zer diñoen, ain urruti bizi zarien arren. zelan etorri zan eta Egisto'k zelako eriotza negargarria inguratu eutson. Baiña

(idem, ibidem; 193)

orduan Egisto Tiestiada bizi zan eta leenago Tieste'k bere etxea eukan landearen bazterreaino eronaz. Ara ezkerre biurkera erreza eritxen eta, jainkoak naita aizea aldatu bait zan, euren etxeetara eldu ziran alango baten. Agamenon'ek poz-eztitan zapaldu eban bere sorterriko lurra, oster ta barriz bera ikutu ta mosukatuz; begietatik be malko beroak zerioen pozaren pozaz bazter a ikuskatuaz. Baiña gaindegi batetik ikusi eban, saritzat urrezko talentu bi aginduta Egisto maltzurak an jarri eban talaiari batek; au urte bete zala zan ango begirale (Agamenon etorri etzedin iñok ikusi bage ta kemen oldartsua erakutsi); eta supituan joan zan jauregira gizonen zaiñari aren barri emotera. Eta Egisto'k otsotsean irazi eban azpi-joko maltzurra: erriko ogei gizon zan-



gar aukeratu ta zelatan ipiñi ebazan, beste aldetik oturuntza bat gertatu egiela agintzen eban artean. Agamenon, gizonen zaiñagana jo eban gero oturuntzarako dei egiten, zaldi ta burdiakaz, bere kolkooan triki-maillu iguingarriak erabiltzalarik. Beragaz eroan eban gizurena, gertu eutsoen eriotzaz ezer ez ekiana, eta jaten emondakoan, bizia kendu eutson aska ondoan ilten dan idiari lez. Atrida'gaz ara eldu ziran lagunetatik bat bera be etzan bizirik gelditu, Egisto ta onen lagunen eskuetatik iñok ez eban iges-egin, ezpabe danak illak izan ziran jau-regian.

(idem, ibidem; IV, 529-537)

411 «Odis.—Atrida aintzatsu, gizonen errege, Agamenon! Zein adu eriotz ikaragarrikok kendu eutzun bizia? Bear bada Posidon'ek il zinduzan zeure ontzietan, aize-bolada izugarrien ats-aldi gogorra sorturik, edo-ta lur tinkoan gizaseme etsaiak emon eutzuen eriotza, euren idiak eta artalde ederrak zeroiezu-zalako, edo-ta euren uriaz eta euren emazteakaz jabetu nairik burukatzen zendulako?

418 «Onela esan neutsan; eta ak erantzun beingoan:

419 «Agamenon.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, amarrutan azkar! Ez nindun il ontzietan Posidon'ek, aize izugarrien bolada latza ler-azirik, ezta ez ninduen gizaki etsaiak lur tinkoan ni erail: Egisto'k gertau eustan eriotza, eta aduak, neure emazte doakabeagaz aituta, bere etxera dei egin eustan, eta jaten emonaz, bizia kendu eustan idi bati aska ondoan kentzen yakon lez. Edu orretan il nintzan, erio negargarria jasanik; eta neure ingurumari sarraskituak izan ziran nire lagunak be, bata bestearen ondoren, gizaseme aberats eta aaltsu baten etxeap, eztegu-oturuntza baterako, nor beretik jaten dauan bazkari baterako, naiz orrits bikain-bikainerako, ortz zuridun txarriak sastakatu oi diran legetxe. Ikusi izan dozu burruka latzean banaka jausitako gizon ilketa joria; baiña benetako errukia emongo eutzun aurki ikuskizun arek, gu kratera biran eta mai beteen inguruan zelan gengoan ikusiaz, beia andik eta emendik odolez blei-blei geunkala. Entzun neban Priamu'ren alaba, Kasandere'en aots errukiorra, Klitemnestra maltzurak, neure alboan, ilten eukanarena; eta nik, lurrean eta il-bearreko, besoak jaso neroiazan ezpatatik oratu nairik. Baiña lotsa-galdu a joan egin zan gero, niri ez betazalak eratsi ez aoa itxi bagarik, Hade'ren egoitzera jatsiz niñoiala ekusan arren.

(idem, ibidem; XI, 404-434)

II. Zertan gara kexu gauzen izaeraz? Ongi ari da bera: bizitza, erabilten jakinez gero, luzea duzu. Bataz asezineko largura jabetu da; besteaz alferreko gauzetan jardun behar; bata ardotan blai, bestea egonean motel; honako hau besteek zer esango eta beti handiguraz kezkatu; harako hura salerosketen irrikaz bultzaturik irabazi ustetan lurralde eta itsaso guztiak arakaturik. Batzu gudartzaren irritsak menpe darabiltza, inoiz besteen arrisku ez adi edo berenez larri egon gabe. Badaude nagusiak otseindu behar latzak borondatezko morrontzan nekatzen dituenak; asko eta asko besteen portaeraren arduraz edo berenaren arrenguraz lotuta. Gehienak, helburu ziurrik gabekoak, etengabeko ezinegon kontetagitza harinak hara eta hona daramatza. Batzurentzat ez dago ezer gogokorik, urratsak hara zuzentzeko; aitzitik ahozabalka eta indarga patuak harrapatzen ditu, hainbestearino non olerkaririk handienak orakulo moduan esan zuena, haiek benetazkotzat hartzen duten ezbairik gabe: "eskasa da bizi dugun bizitzaren zatia". Enparau tartea, jakina, ez da bizitza, denbora baizik. Alde guztietatik bizioek inguraturik eta estuturik, ez diete uzten erne egoten edo begiak egia ikusteko jasotzen. Irritsetan murgildurik eta josirik bizioek zapalduta. Ezin dute beren baitara hurbildu. Inoiz ustegabeko barealdirik badator, itsaso sakonean bezala, haizetzaren ondoren gorabeherak izaten diren antzera, baitan hona bestean hara, inoiz ez dute beren irritsetan atsedean aldirik. Hauetaz uste duzu esaten ari naizela nolako gaitzak dituzten agerian? Begira itzazu zoriona bila doakienak: euren ongietan itotzen dira. Zenbatentzat aberastasunak astunak diren! Zenbaten etorriak, azkartasu-



suis otium stat. De istis me putas dicere, quorum in confesso mala sunt? aspice illos ad quorum felicitatem concurritur: bonis suis effocantur. Quam multis divitiae graves sunt! Quam multorum eloquentia cotidiano ostentandi ingenii spatium sanguinem educit! Quam multi continuis voluptatibus pallent! Quam multis nihil liberi relinquit circumfusis clientium populus! Omnis denique istos ab infimis usque ad summos pererrata: hic advocat, hic adest, ille periclitatur, ille defendit, ille iudicat, nemo se sibi vindicat, alius in alium consumitur. Interroga de istis quorum nomina ediscuntur: his illos dinosci videbis notis: ille illius cultor est, hic illius; suus nemo est. Deinde dementissima quorundam indignatio est: queruntur de superiorum fastidio, quod ipsis adire volentibus non vacaverint! audet quisquam de alterius superbia queri, qui sibi ipse numquam vacat? Ille tamen te, quisquis es, insolenti quidem vultu sed aliquando respexit, ille aures suas ad tua verba demisit, ille te ad latus suum recepit: tu non inspicere te unquam, non audire dignatus es. Non est itaque quod ista officia cuiquam imputes, quoniam quidem, cum illa faceres, non esse cum alio volebas, sed tecum esse non poteras.

na egunero erakutsi behar, eta odola ateraerazten dien! Zenbat eta zenbat etengabeko atseginetan zurbildurik! Zenbati, herritar bezeroek inguraturik, ez zaie askatasun izpirik geratzen! Azkenik, begira itzazu guzti hauek behe rengotik hasi eta gorengoraino: batak dei, bestea ager, honako honek arriskatzen, harako hark aldeztan, besteak epaitzen, inor ez dabil berearen alde, bata bestearekiko erretzen. Galde ezazu izenak dakitzagunei buruz: ezaugarri hauek dituztela dakuskezu: hau haren arduratan, bestea beste baten arduratan; inor ez berekikoan. Gero baduzu beste batzuren haserre arrazoirik gabekoa: nagusien jaramonik ezaz kexu dira, eurak bertaratu nahi dutenean astirik ez dietelako arkitzen. Besteren harrokeriaz kexu, nor eta berekiko astiz inoiz ez dagoena! Zarena zarela horrek noizean behin arpegi harroz begiratzen zaitu, besteak belarriak zure hitzei adi jartzen ditu, harako hark bere ondoan hartzen zaitu: zu, berriz, inoiz ez zara zu aztertzeke edo entzuteke duin izan. Eginbeharron errua ez inori ezarri, egiten zenitunean ez bait zenuen gura bestearekin egon; aitzitik zerorrekin egoterik ez bait zenuen.

(jarraitzeko)

DEFINITIONES, ETYMOLOGIAE, EXPLICATIONES, E SANCTI  
AUGUSTINI SCRIPTIS DE PROMPTAE.

186 **ZUZENBIDEA** : "Quod si eam maximam dici Zeno non si-  
verit, qui tantam virtutum copulam unitatemque confir-  
mat, ut ubi fuerit una, omnes dicat adesse virtutes, et  
ubi una non fuerit, omnes deesse; atque illam veram es-  
se virtutem, quae hac quadræ iugalitate perficitur:  
tunc quoque nobis plurimum præbēbit auxilii, cum docu-  
erit, nec prudentiam, nec fortitudinem, nec temperantiam  
posse sine iustitia contineri; secundum quam veritatem  
et Ecclesiastes pronuntiat: Qui in uno peccaverit, mul-  
ta bona perdet (Eccl. 9-18)  
(Contra Iulianum Libri sex; lib. I, 36)

Egia, Zeno-k ez du nahi (zuzenbidea) bertutetako handi-  
ena deitzea, bertuteen batasuna hain handia eta elkar-  
tasuna hain trinkoa, bat egonez gero birtute guztiak  
daudela esaten du, eta bat peituz gero denak huts egi-  
ten dutela. <sup>E</sup>ta benetako birtutea laukote hontan datza  
la: eta laguntza handia ematen digu hau erakustean: ez  
dagoela zuhurtziarik, ez sendotasunik, ez neurribiderik  
zuzentasunik gabe. Egia honen araura Eklesiastesek hon-  
tara dio: Batean huts egiten duenak ongi asko galtzen  
ditu. (Eccl. 9, 18)

187 **ZUZENBIDEA** : "... Non est autem aliud quam virtus  
omnia continens, et restituens suum unicuique, sine fra-  
de, sine gratia". (Contra Iulianum libri sex; lib. I, 38)

Denak beragan dituen zerbait da (zuzentasuna); eta bako-  
itzari berea ematen diona, iruzurrik gabe eta nahikeri-  
arik gabe.

188 **BEKATUA** : "Peccatum est voluntas admittendi vel re-  
tinendi quod iustitia vetat, et unde liberum est absti-  
nere".

(Contra Iulianum Libri sex; liber I, 44)

Hauxe da bekatua: zuzenbideak galerazten duena berega-  
natzea edo gordetzea, hor ez jausteko aske garela.

189 **GORPUTZEN SORRERA** : "Non enim alius deus, sicut Ma-  
nichæus fingit, aut dii minores, sicut Plato errat, sunt  
corporum conditores; sed utique Deus bonus et iustus o-  
peratur etiam corpora talia (faeda)

(Contra Iulianum Libri sex; lib. I, 116)

Ez da beste jainko bat, Manes-ek asmatu zuenez, edo ja-  
inko txikiak, Platon-ek oker uste duenez, gorputzen egi-  
leak; aitzitik Jaungoiko on eta zuzenak egiten ditu  
gorputz horiek ere.

(jarraitzeko)



DEFINITIONES, ETYMOLOGIAE, EXPLICATIONES, E SANCTI  
JERONIMI EPISTOLIS DE PROMPTAE.

- 35 **PAGANOAK IDAZLE** : "Absit ut de ore Christiano sonet  
"Iuppiter omnipotens" et "mehecurle" et "mecastor" et  
cetera magis portenta quam numina. At nunc etiam sacer  
dotes Dei omissis evangeliiis et prophetis videmus co-  
moedias legere, amatoria bucolicorum versuum verba can  
tare, tenere Virgilium, et id quod in pueris necessita-  
tis est crimen in se facere voluntatis".  
(Ad Damasum 21,13)

Kristau ahotan ez al da entzungo "Jupiter guztialtsu  
a", "Herkule-rengatik" edo "Castor-rengatik", edo enpa-  
rauak, jainkoak baino gehiago munstroak direnak. Orain,  
berriz, apaizak eurak, ebangelioak eta prophetak alde  
batera utzirik, komediak irakurtzen ikusten ditugu, ber-  
tsò. bukolikoen maitasunezko berbak esaten eta Virgili-  
o eskuratzen. Eta umeengan derrigorrezko bekatua dena,  
eurek borondatezkoa egiten dute.

- 36 **SYMPHONIA** : "Illud, quod in quodam psalmo superscribi  
tur "pro meleth", huic sensui convenit, siquidem "mele-

th" chorus in unum concinens dicitur. Male autem qui-  
dam de Latinis symphoniam putant esse genus organi,  
cum concors in Dei laudem concertus ex hoc vocabulo  
significatur; "symphonia" quippe "consonantia" expri-  
mitur in Latinum".

(Ad Damasum 21,29)

"Pro meleth" psalmoren batean izenburutzat agertzen  
dena ongi datorkio esangura honi. "Meleth", bada, bate-  
ra abesten duen abesbatza bait da. Eta Latino batzuk  
oker uste dute symphonia jogailuren bat dela. Hitz ho-  
nek, ordea, Jaungoikoaren gorespene bateratasuna adie-  
razi nahi du. Symphonia, beraz, latinez consonantia da (  
soinu-bateratasuna).

- 37 **KALDEATARRAK** : "Inquadregesimo quarto psalmo Deus  
ad animam loquitur humanam, ut secundum exemplum Abra-  
hae exiens de terra sua et de cogitatione sua relinquit  
at Chaldaeos qui "quasi daemonia" interpretantur".  
(Ad Eustochium 22,1)

Berrogei eta laugarren psalmoan Jaungoikoa giza anim-  
ari mintzo zaio, Abraham bezala, bere lurretik irten e-  
ta bere sendia utzirik, Kaldeotarrak utz ditzan, demo-  
niotzat hartzen direnak.

38 **ABORTOA** : "Aliae vero sterilitatem praebibunt et nec dum nati hominis homicidium faciunt. Nonnullae, cum se senserint concepisse de scelere, aborti venena meditantur et frequenter etiam ipsae commortuae trium criminum reae ad inferos perducuntur: homicidae sui, Christi adulterae, necdum nati filii parricidae."  
(Ad Eustochium, 22, 13)

Beste batzuk, aldiz, antzu gelditzeko edariak prestatzen dituzte eta oraindik jaiobakoaren erailketa egiten dute. Bestetzuk, bekatuz haurdun direla ikusirik, abortatzeko pozoiak gertatzen dituzte eta sarritan eurak erre hil eta hiru gaizkien errudun doaz infernua: beren buruen hiltzaile, Kristo-rekiko ezkontza-hausle eta ume jaiogabearen eraile.

39 **ALARGUNAK** : "...et quia maritorum expertae dominatum viduitatis praeferunt libertatem, castae vocantur et nonnae, et post cenam dubiam apotolos somniant".  
(Ad Eustochium, 22, 16)

Senarren nagusigoa probatu ondoren alarguntsen askatasuna gurago dute eta, garbiak eta nonnak deitzen dira, eta bapo afaldu eta gero apostoluekin amets egiten dute.

(jarraitzeko)



## II

Duodecim annos natus ad seminarium in populo Artea situm ivi. Per liturgiam rite et pulchre exactam vocatio exorta est mihi, ut opinor.

In Artea tres annos egi, laeto promptoque animo. Ibi *euskaldunak* cognovi, id est, vasconice loquentes, qui in Bizkaia habitant in septentrione ac meridie usque ad orientem solem. Qui sanis mentibus et corporibus mihi plus valere visi sunt quam alteri ex magna urbe Bilbo venientes. Praesertim, non tanta malitia polluti, iuxta illud Caesaris, "fortissimi... minimeque ad eos mercatores saepe commeant atque ea, quae ad effeminandos animos pertinent, important..." (Caesar, "De bello Gallico", I, I-1). Inter quos optimos amicos inveni. Eorum locorum naturam quoque, vere amaenam et pulchram, ardentem diligere incepti.

Omnibus his rebus factum est ut postea, cum ad seminarium Victoriense proficisci deberem, "torpuerant longa pectora nostra mora" (Ovidius, *Tristia*).

Sed priusquam ad haec veniamus, hoc mihi narrandum puto:

Cum ad deambulandum in montem in proximo situm olim egressi essemus, postea ut domum redirem qua mihi iter faciendum nesciebam. Advenit quidam puer vicinorum agricolarum, a quo viam scire volui. Sed nec ego linguam vasconum cognoscebam, nec ille sermonem hispanice loquentium. Eramus in prato sedentes, ad invicem respicientes, ridentesque ob nostram ignorantiam. Tum demum apparuit condiscipulus noster Iñaki Etkezarraga, linguam vasconicam sciens. Atque puerum illum de omnibus quae ad reditum nobis erant necessaria percontati sumus.

Quo facto commotus in imo corde statui me, quam primum possem, vasconum linguam ediscere incepturum, ut vascones et eorum terram vere amare possem et si forte, in apostolatu exercendo, ad fines eorum pervenirem, *euskaldunak* culturam christiano more docere et illorum historiae et culturae divitiis frui possem.

"Sed si tantus amor casus cognoscere nostros", quamvis "infandum iubes ... renovare dolorem" incipiam (Virgilius, *Aeneidos liber II, 3-10*).